

Txinatar filosofia

Txarvaka eskolaren testu nagusienak etsaien aipamenetatik ezagutzen dira bakarrik.

Eskola materialista denez, kosmo enpirikoa bakarrik ezagutzen du egiazkotzat --hortik, hain zuzen, "lokyatata" izena--; beraz, *hinduismoan hain oinarritzakoak diren irakatsiak (atman, karma, berraragiztapena, eta abarri dagozkienak, hain zuzen ere) ukatu egiten ditu. Hala ere, filosofi eskola bezala (eta batez ere erlijio bezala), hinduismoaren mundu zabalaren barnekotzat hartzen da.

Txarvaka-ren *materialismoaren arabera, materia --benetako errealtate bakarra, hain zuzen-- airez, lurrez, suz eta urez osotuta dago. Filosofia presokratikoarekin kidetasuna behintzat aurki daiteke hemen.

Kontzientzia bera materiaren funtzioa da, eta elementu materialen konbinazio berezietatik sortzen da.

Ezagutu, ere, sentsuez hartzen duguna bakarrik ezagutu dezakegu; bestelako ezagupide guztiak ez dira fidagarriak.

Heriotza ez da bestelako bizitzara igarotzea, bizia erabat galtzea eta ezerezera itzultzea baino.

Etikaren aldetik hedonista da eskola hau. Era berean, karma-rekiko irakatsia ukatzen du; eta inoren patua bere bizitza-ekintzen efektua denik ez du onartzen: "meritua" eta "demeritua" kontzeptuek ez daukate esangurarik, txarvaka eskolaren arabera.

Erdi Aroa arte iraun zuen eskola honek, ofizialki bederen.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Indiar filosofia.

Txinatar filosofia

Honela dio G. Greel-ek bere El pensamiento chino desde Confucio hasta Mao Tse-Tung liburuan (Alianza Edit., Madrid, 1976): "Las sutilezas metafísicas a que está acostumbrado le salen al paso allí (en la filosofía india), y en formas de mayor complejidad aún, si cabe. Pero el filósofo occidental que estudia el pensamiento chino primitivo puede sentirse inclinado a negar que aquello sea filosofía en absoluto. Desde luego tiene uno que admitir que es una clase de filosofía muy diferente, que por lo general permanece muy apegada al terreno de la vida humana ahora y aquí y a los problemas humanos" (216-212 orr.). Honetaz ik. "Ekialdetar filosofia" artikulua.

Hurbilketa formal bat egin nahian, honela definituko genuke txinatar filosofia: VI.

mendetik hasi eta gaur arte Txina-n landu den pentsamendu-korrante berezia eta bateratua. Era honetara, India-tik sartu zen budismoa eta azken mendeotan Mendebaldetik sartu diren filosofiazko ismoak ere Txinatar Filosofiatzat har daitezke, bertako tradizio handiaren arabera birmoldatu diren neurrian: honela, txinatar *budismoaz mintzatzen gara; eta *marxismoa maoismo bihurtu da Txina-n.

Ekialdetar filosofiaren tradizio zaballean kokatu ohi da txinatarra ere (ik. Ekialdetar filosofia); hemen txinatar filosofia bere autonomian eta bere batasun historikoan azaldu beharra dago.

Txinatar filosofiaren historia oso loturik doa historia politikoari: alde batetik, filosofo nagusi gehienek, filosofia irakastearekin eta idaztearekin batera, kargu politiko publikoren bat betetzen zutelako; eta, bestetik, aldiaren aldiko erregimenak edo dinastiak filosofi eskola jakin bati bere babes ofiziala eman ohi ziolako. Horregatik, txinatar filosofiaren historiaren banaketa nagusiek eta txikiagoek dinastien aldaketekin zerikusi handia ukan ohi dute sarritan.

Horri kontuan izanik, lau aro handitan banatu ohi da askotan txinatar filosofiaren historia (hala, e.b., Paul Edwards-en zuzendaritzapeko The Encyclopaedia of Philosophy delakoak):

1. Antzinakoa, hasieratik K.a. 221. urtea arte, Chin dinastia gailendu zen artekoa, alegia. "Ehun Eskolena" ere deitu ohi da: hau da, hainbat filosofi eskolaren sorrera eta eraketa gertatzen da garai honetan. Aro hau *konfuzianismoarekin eta *daoismoarekin hasten da gorpuzten. Bi eskola hauek gertatuko dira Txina-ko Filosofi tradizioaren bi ardatzak. Hauen inguruan eta sarritan hauen kontra sortu ziren beste eskola asko --"Ehun Eskola"--; lau dira nagusienak, horien artean: *Mohismoa, Dialektizismoa (edo Izenen eskola), *Yin-Yang Eskola eta Eskola legalista.

2. Erdikoa, K.a. 221-K.o. 960 arte, hau da, Sung dinastiak boterea hartu zuen arte. Alde batetik, filosofi korrante eklektikoak sortzen dira, konfuzianismoaren barnean eta horren eta daoismoaren artean.

*Sinkretismo-prozesu honetan eragin handia du Yin-Yang Eskolaren indartzeak eta zabalitzeak; eta bereziki I Jing ("Aldaketen Liburua") delakoak, bere Oinarri gorenari (*t'ai chi) eta Yin/Yang printzipioei buruzko irakaspenen bidez.

Bestetik, budismoa sartzen da Txina-n, eta poliki-poliki asko indartzen da: berak ere hainbat filosofi eskola ematen ditu, eta bereziki Chan eskola, gero Japonia-n *Zen

bihurtu zena. Aro honetan neodaismoaren eraginpean budismoa bertakotzen da Txina-n eta konfuzianismoa indargabetzen.

3. Modernoia, 960-1912 bitartekoa, hau da, Txinatar Errepublikaldarrikatu zen artekoa. Konfuzianismoaren erreakzioa eta neokonfuzianismoaren garaia, bere korrante eta aldi desberdinetan. Budismoak eta daoismoak eragin handia dute neokonfuzianismoan.

4. Garaikidea, 1912tik gaur artekoa. XIX. mendearen erdi ingurutik hasita, baina batez ere Txina Errepublikari bihurtu zenetik, Mendebaldetik filosofi korrante berriak sartzen dira Txina-ra, bereziki marxismoa indatzen da, Estatu-filosofia gertatzeraino. Baina korrante hauek zirikaturik, konfuzianismoa eta budismoa birbirtu egiten dira, Txina-ko filosofia tradizionalaren eta mendebaldararen arteko elkarganatzea lortu nahian.

Txinatar filosofiaren funtsezko berezitasuna humanismoa da. Honela dio Wing-tsit Chan-ek, The Encyclopaedia of Philosophy aipaturiko hiztegi "Chinese Philosophy" artikulua hasieran: "The hundred Schools (...) had one thing in common, their primary concern with man both as an individual and as member of society. This humanistic note was dominant from the earliest times and characterized all schools".

Argi dago hori, konfuzianismoari dago-kionez, honen lehen abiaburuko asmo nagusia gizaki jatorra ondo ordenaturiko gizarte batean lortzea bait da. Baina daoismoaren tzat berarentzat ere gizakia da azken helburuko asmo nagusia; eskola honen abiaburuan errealtatearen batasun eta naturaltasun transzendentalak nabarmentzen dira --eta horregatik zenbaitek bi eskolak, konfuzianismoa eta daoismoa aurrez-aurre jartzen ditu Humanismoa/*Naturalismoa bezala-- . Baina, nahiz eta gizakia Dao-ren --Izadiaren-- batasunean eta unibertsaltasunean murgildurik egon, gizakia --gizabanakoa-- eta gizartea dira daoismoaren aztergai nagusia, konfuzianismoan eta beste eskoletan bezala. Agian bi humanismo desberdin bezala uler daitezke konfuzianismoarena eta daoismoarena: humanismo kulturalista, lehenarena, eta humanismo naturalista, bigarrenarena. Baina konfuzianismoaren barruan ere joera naturalistagoak eta kulturalistagoak nabarmendu ohi dira.

Bi humanismo-mota horiek, bestalde, txinatar filosofia gidatzen duen pentsaera dialektiko gisakoaren argitan uler daitezke. Pentsaera dialektiko hori, berriz, Txinatar filosofiaren erdiguneko kontzeptua --*Dao-- eta horren inguruko gai nagusi-nagusi eta orokor hauek azaltzean eta adieraztean agertzen da:

a) Mikrokosmoa/*makrokosmoa: Gizakia --mikrokosmoa-- unibertsorearen --makrokosmoaren-- araberakoa da. Horregatik, Dao unibertsalaren eta Dao banakoaren artean kide-tasuna dago: areago, banakakoa unibertsale-tik hartua da. *Unibertsismoa deitu izan da Txina-ko filosofiaren mundu-ikuskerari hori.

b) Teoria/praxia: Ezagutzaren eta ekin-tzaren arteko lotura eta banaezintasuna bereziki *Wang Yangming neokonfuzianistak aztertu zuen; baina txinatar filosofia osoaren oinarrian dagoen pentsaera adierazten du. Txinatar *Jakintsua --benetako filosofoa-- ez da asko jakin dakiena bakarrrik, eta bai, jakitearekin batera, birtutesua eta zentzuduna, jatorra eta zuzena dena.

c) Pasiboa/aktiboa: Bi printzipio metafisiko (*Yin/Yang), kontrako eta elkarren osagarriak: gauza guztien sorrera, izaki guztien izaera polarra eta munduaren etengabeko aldaketa-dinamika (*Yi) argitzen dituztenak. Yin/Yang eskola berezia gaindituz, horrelako pentsaerak Txinatar pentsaera osoa biltzen du.

Txinatar filosofian *Etika nagusitzen da, aztergai bezala. Etika sozio-politikoan, berriz, gizabanakoaren eta gizartearen arteko oreka bilatu nahi du txinatar pentsamen-duak.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Ekialdetar filosofia.

Taylor, Edward Burnett

London-en 1832an jaioa eta 1917an Somerset-en hila. Lehen kulturak eta erlijioak aztertu zituen. Spencer-en eboluzionismoari buruzko teoria onartu eta bereganatu zuen. *Animismo" terminoa asmatu zuen, lehengo bilakabide mailako erlijioa izendatzeko. Geroko erlijioetan aurkitzen ditugun ikusmolde animistak, lehengo erlijio haren utzikinak dira. Obrak: Researches into the Early History of Mankind, 1861; The Natural History of Religion, 1900.

Tyrrell, George

Ingalaterrako *modernismo-korrontekoa, 1861-1909 urte bitartean bizi izandakoa. Newman-ek, Oxford-eko mugimendua bultzatu eta aurreratu zuenak, garrantzia handia izan zuen beraren doktrinan. Kristautasunaren dogmak, errituak ta hierarkiak ezetzatuz, kristautasuna berritzearen alde jarri zen. Obrak: Nova et Vetera, 1897; On External Religion, 1899; Through Scylla and Charybdis, 1907; Christianity and the Crossroads, 1909.